

YAKINTZA

EUSKERA IZKUNTZA BAT OTE?

ADITZA LAGUNTZALLEA: IRU EREDU

Gure euskeraren mamiari buruz, esan bearrik aundiena oraindik, argi ta garbi azaldu bearra daukagu.

Bein betiko, jakintsuen lana da esatea, euskera zer dan: izkuntza bat edo beste zerbait. Galdera garbi batek azalduko luke gure kezka: Izkuntza bat al da, edo bizpairu ote daude batean? nolanai elkaturik, bata bestearen ondoan dauzkagunak?

Orain ade, gure izkuntza bat bezala artzen dugu eta ikusten duguna bizpairu zatitan banatua. Izkuntzen adar oiei, dialektoak deitzen diegu. Gure euskalkiak dialektoak ote?, edo egitazko izkuntzak? Ori garbi asko ikusi bearra daukagu.

Iritzi garbi batera iristeko, ikerketa batzuek egin bear, adibidez artu gai berexi bat eta ikusi nola esaten dan ori bera beste euskalkietan.

Neurtzeko gai berexi oiek izkuntzaren giltzarriak bear lukete izan. Neurketa oietan ikusiko litzake gure Izkuntzaren sustraia eta gjarra, baita nolakoa den bere nortasuna.

Beste izkuntzetan bezala, euskeraren sustraia edo zutabea, aditza da. Beste izkuntzeen ondoan jarrita euskal aditza oso berexi ta bestealakoa da ta ba ditu bere jokabide arrigarriak.

Gure euskalkjak aztertu ditzazkegu eredu batzuen bidez, esanez nola jokutzen diren.

Aditzaren aldetik, jokabide aberatsenak, aditz laguntzallearenak ditugu, bai garaien aldetik ugarienak direlako, baita morfologi aldetik era askotakoak agertzen direlako.

Orduan aditzaren itzen aldaketa oien itxurari begiratuko diegu zorrotz, baita dagokien neurriak egin, egitazko neurketak.

NEURKETAKO AUKERAK

Aditz laguntzalleak aditz jokabideen bildumetan morfologia dauka aberatsena ta ugariena.

Alor orretan, nere iritziz, lanik ederrena Apta Placido Mugikarena da. Bi orritan, aditz laguntzallearen morfologia osoa sartu du. Gañera morfologiaren aurkezpena, izan leiken argiena erabilli du. Bi orritan den dena sartua; orri batean transitiboa, bestean intransitiboa. Garaiak berriz, Nor-Nori-Nork jokabidean atsestua.

Nor-Nori-Nork erabideari eusten diola, Intransitiboan bi jokabide ditu bakarrik; bat NOR eta bestea NOR-NORI.

Transitiboak berriz iru larrain dauzka; NOR 3. ^a-Nork, NOR-NORI-NORK eta NOR (1.a-2.a)-NORK.

Orain aditzaren garaiei buruz orrela ditu eratuak lauhoak:

(DA) Orain garaia (Indikatiboa)

(ZAN) Len garaia (IND.)

(DEDIN) Orain (SUBJUŃT:)

(ZEDIN) Len garaia (Subjunt.)

(DAITEKE) Orain (Potenziala)
(LITEKE) Gero (Potenziala)
(ZITEKEN) Len garaia (Potenziala)
(LITZAKE) Gero garaia (Indikatiboa)
(ZITZAKEAÑ) KONDIZIONAL, LEN GARAIA (IND.)
(BA LITZ) Baldintza (INDIKATIBO)
(BEDI) Orain (AGINDU era)
(BA'LEDI) Baldintza (Potenziala)

Intransitiboaren lauki nagusia dugu or. Garaien aldetik irtenbide berdiña darabilki Transitiboakin.

Garaiak errenkan jarri ditun bezala ez zait iduritzen ain zuzenak, zertxobait nasjak baizik. Ikus dezagun nola egiten duen. Lendabizi Indikatiboa dator orain eta len garaiak. Ondotik Subjuntiboa dator. Bidezkoa deritzaigu.

Gero Potenziala dator ta onen ondotik Indikatiboaren garai batzuak, batez ere indikatiboaren geroa. Ez al luke joan bear Indikatiboa osoak, bat egiten dula?

Ta Agindu erako aditzaren ondotik jartzen du Baldintzazko Potenziala. Emen ere ez al du Potenziala sendi orrek denak batean joan bear?

Aditzaren ageribidea zorrotzagua bear luke izan, garaiak errenkan jartzera-koan. Orregatik beste jarraipen bide au eskeintzen dugu:

(DA) Orain garaia (IND.)
(ZAN) Len garaia (IND.)
(LITZAKE) Gero (IND.)
(ZITZAKEAÑ) Kondizionala len (INDIC.)
(BA'LITZ) Baldintza (INDIC.)
(DEDIN) ORAIN (SUBJUNT.)
(ZEDIÑ) LEÑ (SUBJ.)
(DAITEKE) ORAIN (POTENZIALA)
(LITEKE) GERO (POTENZIALA)
(ZITEKEN) LEN KONDIZIONAL (POTENZIALA)
(BA'LEDI) BALDINTZA (POTENZIALA)
(BEDI) ORAIÑ (AGINTE)

Morfologi osoa orrela dijoa eratua, emen egin dugun zuzenketa orretan: Indikatiboa, Subjuntiboa, Portenziala eta Agintea.

Jarraibide au askozez zuzenagoa eta egokiagoa deritzait. Garaiei buruz auxe izango da jarraibidea: Orain, Len, Gero, Baldintza ta agintea.

Aditz laguntzallea, orrela moldatua, ikaskintzarako aurrerapen aundi bat da. Orrialde orreri begiraturuz euskal aditzaren ikasketa askozez errexagoa egiten da.

ZE EUSKALKIEÑ ADITZA

Orain gipuzkeraz lan ori egiña daukagula bidezkoa deritzait, malla ta garai berdiñean, begien aurrean bizkaitarrez aditza laguntzallearen lan osoa egitea.

Bizkaitarren ondotik jokabide ta garai berdiñak, ondo eratuak jarri bear ko genituzke Xiberotarrez. Orrela euskeraren iru eredu oien erantzunak izango genituzke.

Ortxen ikusiko genuke garbi asko zeren antza dauzkaten euskeraren iru eredu oiek.

Gipuzkoar aditza laguntzallearen lana, Aita Plazido Mugika'rena da, esan dugun bezala oso lan ona eta aurrerapen aundia irakaskintzaren aldetik.

Aita Plazido Mugika'ren lana oraindik obeto orraztu dut nik eta errexagoa azaldu dut.

Lan ori bera, Bizkaieraz idatzi dit Martin Olazar euskal idazle ta Euskera-

zaintzako zuzendariak. Morfologia aldetik lan zailla. Ezagutzen zituen jokabideak ematen dizkigu. Ezagutzen ez ditun aditz-itzak marratxo batekin agertuko ditugu.

Aita Plazido Mugika-ren bi orrialdeak nik moldatuak Aita June Casenabe-k xiberotarrez jartzen ditu; ziñezko euskara, oso garbia eta egokitasunez jantzia erabiltzen du.

Orrela iru eredu auek, alkarren ondoan jarrita ikusiko dugu, oso lasterka ta garbi asko zeren antza daukaten.

Aditz laguntzallearen iru eredu auek, zoragarrizko aurrerapena eskuratzen digute, iruek batean gure euskal kulturaren bitxi bat dira ta ikasle ta ikerlarjentzat laguntza aundi bat.

NEURKETA BATZUEK

Ikus ditzagun orain guipuzkoar aditza laguntzallearen ondoan ba bizkaieraz jokabide batzuek, berdiñak ote diren edo oso ezberdiñak.

Ementxen ditugu eredu batzuek bizkaieraz:

NOR-NORI-NORK, Oraingo garaian (IND.), ara ereduak:

daust, -duz -dautzu, dautso, -dausku, -dautse.

NOR-NORI-NORK, len garaian (IND.) ara ereduak:

Neban/neutzun, -neutson, -neutsen...

NOR-NORI-NORK, geroa (IND.):

Neukeak, -neuskizu, -neuskio, -neuskizue

NOR-NORI-NORK, geroa, len garaitik ikusia:

-eukean, -neuskizun, -neuskin, -neuskizuen...

NOR-NORI-NORK, baldintza (IND.):

-ba'neutsun, ba'neutson, ba'neutsuen...

NOR-NORI-NORK, orain (SUBJ.):

egidan, dagitzudan, dagitsodan eta abar.

NOR-NORI-NORK, len (SUBJ.):

EINKEN, -neiketzun eta abar.

Jokabide osoaren laukian, bizkaieraz ikusten ditugun itz guzti auek gipuzkoarren ondoan jarrita, ezberdintasun aundia nabari. Egitura edo estruktura berdña, garaiak ere bai eta itzeen itxuraren aldetik edo morfologiaren aldetik aditza oso bestelakoa, oso ezberdiña.

Berea sortzez ez duna aditza au bereganatua, den dena, orpotik ikasi bearra dauka, oso bestelakoa dalako.

Orain xiberotarrez aditz laguntzallearen eredu batzuek jartzera goaz:

NOR-NORI-NORK, -Orain (INDICAT.) -deiot, -deio...

NOR-NORI-NORK, -Len Garaia -neion, -heion, -zeion...

NOR-NORI-NORK, -neikes, leike (IND.)

—ba'neio

—dizaodan, dizaon

lizaon

—dizatez... eta abar

Aditzaren mamia ori edo estruktura, giarra edo giltzarria berdiña da. Ala guztiz ere jokabidearen itzak aldaketa aundiak nabari morfologiaren aldetik.

Jaiotzez ez dakizkitenak jokabide auek ikasi bearra berriz. Ikasi ezker eskubideak datza ere bai.

Aditz oiek zer esaten duten eta zer nai duten esan berriz, ikasi bearra daukagu. Ezin dugu jokabide bat ikasi eta bestea utzi. Ez dira zokoratzeko tresnak. Euskerari buruz dauzkagun xeetasunak denak bearrezkoak. Gure izkuntza laboratoriorio bat da. Gure izkuntzaren zati denak gorde ta jaso bearrak

dauzkagu. Gure euskarak bere nortasun berexi berexia dauka. Orregatik alderdi den denak jaso bearrak dauzkagu.

IZKUNTZEEN SENDIA

Aditza laguntzallearekin egin den berdinketako edo elkar neurtzeko lan ori, egin bear litzake gure izkuntzaren beste alderdi batzuekin, adibidez joskerarekin. Ortzen daukagu arrobia. Ar ditzagun esaldi batzuek eta euskalki bakoitxetan asmo berdiña nola esaten dan euskalki ezberdiñetan ikus dezakegu. Ikerketa onek emango liguke ezberdintasunaren arazo nagusi bat. Lan au bearezkoa, beste norbaitek egin bearko luke.

Aditz laguntzallearekin izkuntzaren ezberdintasunak garbi nabari. Izkuntza guztietan azaltzen zaigun ezberdintasunataz Martinet jakintsuak erabiltzen du, bere ardurapean argitaratutako liburuan, "A. Martinet, Le langage, Encyclopedie de la Pleiade, Gallimard, Paris 1968", zertan dagon ezberdintasuna izkuntza ta dialektoen artean. Asmo oiek laburtzen ditugula nolabaiteko garbiketa egin bear, izkuntza ta dialektoen artean. Iru arazo nagusiak ditugula izkuntza eta dialektoen artean berak dio. Izkuntza izateko iru baldintza bete bear ditu:

- 1.—Morfologia aldetik aldaketa nabarmenak.
- 2.—Izkuntza ortaz gramatikak egiñak; aditzari buruz berdin.
- 3.—Literatura ederra euskalki orretaz idatzia.

Naiko errex, iru baldintza oiek betetzen dituzte gipuzkerak, bizkaierak eta xiberotarrak. Baldintza oiek betetzen dituztela ezin dugu esan ain arin, gipuzkera, bizkaiera ta xiberotarra euskalkiak, dialektoak direla. Alderdi berdintsu asko dauzkate beren artean arazo berdintsuak dituztela, sendi bateakoak direla esateko. Eta garai berdiñean ezberdintasun aundiak. Euskalerriarekin berdin gertatzen zaigu. Euskaldunok Euskalerria osatzen dugu, bañan oso ezberdiñak gera. Lurralde bakoitxak bere nortasun berexi berexia dauka. Izkuntzarekin gauza bera gertatzen zaigu.

Gure euskalkiak oso izkuntz zarrak dire ta dauzkaten itz eta joskerak, den denak, aspaldiko berriak ematen dizkigutenak, oso aintziñako gizonetaz gauza asko erakasten digutelako. Den dena osorik bildu bear. Ezin baztertu ezertxore.

Euskeraren eredia ez da bakarra. Ortzen dugu zerbait antzekoa, Europa'ko Iparaldean, Germaniko izkuntzaren sendi zabala arkitzen dugu: suekoa, noruegoa, danesa, olandarra, islandesa, Feroe ugarteko izkuntza eta abar eta abar. Sendi zabal baten kideak dire eta garai berdiñean bakotxa, bere aldetik izkuntza bat. Gure euskalkientzat, gauza berdintsua izango litzake...

Gure ustez, etortzeko diren ikerketak bide orretik joango dire. Ba dagota nundik nora jo...

Latxaga

LIBURUEN ZERRENDA (BIBLIOGRAFIA)

- Jose Maria de Lachaga, *La representación del Tiempo en el verbo vasco*, Zabaltzen, Bilbao 1994.
- Latxaga, *Euskal Aditza Noizkoa Ote?*, Euskerazaintza, XXV zenbakia, Donostia 1995.
- Jose Maria de Lachaga, *Remarques de G. Guillaume sur la langue basque dans l'elaboration d'une theorie du langage humain*, pp. 701-707.
- Anuario del seminario de filologia vasca "Julio de Urquijo", —ASIU XXV— 2/31, 1995.